

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

269n. zenbakia
urterrilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE




GORBELAKO KURUTZEA

- 100 URTE IPIÑI ZALA (1901-11-12)
- IKUSPEGI EDERRAK
- EUSKALERRIAREN ARDATZA
- ARTZAINAK URREAN
- SENDOTASUNAREN EZAUGARRI ATXAK

*Zer nolako zortea
gure hizkuntzarena,
mita iturritatik
edaten duena.
Euskararik onena
da norberarena,
eta txarrena, berriz,
egiten ez dena.*

Xabier Euskitze,
2001eko urriaren 18a

euskararik onena **zeurea**



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Bizkaia

GORBEIA'KO GURUTZEA

Legun baten DEIA'n irakurri neban, Azaroa'ren 9'an, idaz-lan eta alkar-izketa eder biren bidez, nola ospatzen dan Gorbeia'ko Gurutzea'ren jaso zanetik 100 urte betetea 1901'an Azaro'an 12'tik-2001'an Azaroa'ren 12'rarte.

Postu nintzan benetan, Bizkaitarrak eta Araba'rrak ainbesteko maitasunean daukagulako Gurutz eder ori alde batetik, eta nire gaztetako oroipenetik ainbeste gauza eder gogoratzen dodazelako bestetik.

Araba eta Bizkaiko mendi aundiarena izanez gain (1482 m.), badauka bai erritarren artean askatasunezko biozkada ederra, beren ikur-irudiagaz.

Gure gaztetako denboratik ointzurarte, nai ardote-gietan, baskal berezietan edo edozein ospakizunetan, abesti asko abestuten gendun sentipen edo samur-araziz, biotza guztiz zimurtuta askatasunaren itxaropene-kin batzuetan, eta alai ta osasuntsu, bai irri ta farra ere bestetan. Oroitzapen orretan, sekula ere esan utsunik egongo Aranburu'tar Luis'ek atara eban abesti ederra-rentzat "EN EL MONTE GORBEA", askoz berandua-go Euskera'ra itzuli zana eta andik aurrera Euskeraz poz aundiaz abestuten genduna.

Gorbeira ainbat bider joan naz, aitagaz, lagunakaz eta bai ere nire emastearekin.


Bide asko dagoz Gorbeira joateko gure aldetik: Murgia, Murua, Barazar, Zeanuri, Areatza eta Orozko'tik. Niri geien egokitu jatena Areatza'koa izan da beti, nai-ta danetik joan Murua'koa izan ezik.

Oso ederrak dira mendi inguruak eta ederragoa Gorbeia mendia, beren izugarrizko ikuspegiaz, eta ondo baiño obeto ikusten dan gure askenetako guda-tokia Franko'ren aurka: Gorbeia, Sabigain eta Intxortak.

Lagun aundi bat eukin neban, Onaindia eta Base-ta'tar Santiago Aita, arro-arro esaten ebana: "Bera, irurogeita amabost bider igon zala Gorbeia'ren Gurutzera-ino".

Argi dago, Gorbeia'ko mendiaren ikur-irudia, gure biotzetan gauza aundi-bat dala. Baiña ez nago batera zuekin, Ferreira'tar Nagore eta Gartzia ta Uribe'tar Iñaki, esaten dozuenean, Iñaki'k: "zuk lan egiten asi-arte iñork ez ebala Kurutzea ikertu"; eta zuk Nagore: "oraintsurarte ez dogula jakin gauza aundirik Gorbeia'ko Gurutzea'ren inguruan". Erriak badakielako nun aurkitu leikezan zeaztasun oiek, Erriko gauzak Errian bertan dagozelako.

Beste gauza bat da: gure izaeraren aurka egiten daukuezan menperatasunezko indarrarekin, gauza asko egiteko daukaguzela oraindik, bestela begitu nola daukagun Euskera bera, eta nolako indarrak egin bear izan diran, gaur daukagun apurra lortzeko, eta zenbat



indarrezko alegiñak egin bear doguzan oraindiño gure Nortasunezko Euskal-gorputz izaerari emoten dautson berezitasuna osatzeko.

Gauza onek, txikitatik ikastolan ikasi bear diran gauzak dira, Bizkai'tarrak eta Araba'rrak batez be, eta ziur egon zaitie, irakasle baten batek batuko dauzala zeaztasun oiek ikasleai irakasteko.

Egia da beste aldetik, gure Errian alperkeri galanta dagoala oraindiño, asko diralako lorez-lore dabizenak ezer egin barik.

Euskal bizitza, zuen antzera, gauza txikerrakin betetan dalako erlearen lana eginda, lorez-lore mozkiña batuta eta Euskal-Etxeko abian kokatuta Euskal-Ezti ederra agertu dagian.

Nagore-Iñaki, esker-milla zuen talde eta zuei, benetan arduratzen zarielako etxeko gaixotasunagaitik, eta bide batez zirikatu inguruan dabizen anai/arreben gogoak bizkortu daitezkan, danon alegiñaz askatu daiten gure Euskalerrri maite au.

ATUTXA'tar PAUL
(ZORNOTZAN 2001-11-20)

EUSKERA

KILI-KLIKITARROK, AGUR!

Aldizkariaren azkenengo alea (236.a) artu dot. Bizkaierazkoa. Irakurri egin eta zeuoi barrian idaztea ebatzi dot. Arteragoko ale bien aldean, bizkaierak leku duinagoa artu dauana ikusi dot, nire barruko poztasunerako. Orregaitik bada, eskerrik asko biotzez.

Badago, oraindikarren, bizkaieraren erabilkerea dala eta, bertan zer obaturik, zer egite rik. Artikulurik geienak bizkaieraz idatzita egon arren be, bertan agiri dan bizkaiera oraindikarren interferentzia askok txipristinduta dago. Ze bizkaieraz idaztea edo berba egitea aditza bera erabiltea ez eze (dot, neban, deusut, neuskioz...), berari jagokozan joskerea eta ezaugarri bereziak be erabiltea izan bada. Bata zein bestea ezin bizi leitekez alkarrengandik asago. Azkenengo aleon be, bizkaieraz bizi-bizirik dagozan berbak eta esapideak baztertu, ostu eta areen orde gipuzkereari arean lekutzua egin jakolako daukat.

Nire eritxi apalean, leenengo-leenengo bizkaierazko ezaugarriai emon bear jake bidea, bizkaiera osoa dalakoari eta, azkenik, besterik ezinean, osterantzeko euskalki eta erdereari. Orrek izan bearko leuke bizkaieraz idatzita izanngo dan aldizkari euskaldunaren berbeta jokabideak.

Aldizkarian bizkaieraz idatzitakoa sakon-sakon aztertu barik, aor esan dodanaren adibide apala. balio be; etorkizunearn argibidetzat. (Bizkaierazkoa baltazgoan)

ALDAERA LEXIKALAK

agerian	agirian	atera	atara
bakoitz	bakotx	banatu	banandu
dabezen	dabezan	dagokion	jagokion
datozela	datozala	den	dan
desberdin	desbardin	edukitze	eukite
elizkoi	eleizkoi	emaitza	emoitza
eman	emon	erraz	errez
esaera	esakera	famatu	famadu
garela(ko)	garala(ko)	asieran	asikeran
autsi	ausi	ezur	azur
iriburu	uriburu	obe	oba
jle	ule	joera	jokera
mami	mamin	nere	nire
osatu	osotu	piztu	biztu
segituan	segiduan	uztartu	buztartu
zen	zan	zirela	zirala
zuaitz	zugatz		

LEXIKOA

albait-en	aalik-en	ametitu	onartu
asmatu	igarri	atera	urten
azkar	zuur, argitsu	barrabil	potro
beraz	alandaze	bikain	itzel
debekatu	galazo	etsai	arerio
grina	lera	itz	berba

LEXIKOA

itz egin	berba egin	ostu	orri
itsusi	motz, zatar	izugarri	ainbat
jarri	ipini/imini	jaso	artu
		(diru laguntza)	
jolastu	olgau	lanean	bearrean
langabezia	bearrik eza	leenengo	leenengoz
		aldiz	
maiztasun	sarritasun	naiz eta	arren
piztu	isiotu	sortu	eragin
tirabira	gorabeera	udazken	udagoien

IZENAREN MORFOLOGIA

-a+a: -ea	errezetEA, zerrendEA, makileEA, euskerEA
-ri buruz	-ren ganean
-z	-ren ganean
zirkulazio	zirkulaZINO
organo sofistikatuen	organoRIK sofistikatuen
emagaldu garestiena	emagalduRIK garestiena
eskola eskola	eskolaRIK eskola
beste batean	beste bateN (non)
jlea	uleAK

ADITZAREN MORFOLOGIA

badakizu -LA	badakizu-NA
konturatu -LA	konturatu-NA
atera NAIZ	urten DOT
konturatzean	konturatuKERAN
etxeratzean	etxeratuKERAN
topatzen	topETAN/topaTZEN (topau)
etorri al da?	etorri (m) da?

FALSE FRIENDS

jarri	ipini	#	jarri	eseri
jaso	artu	#	jaso	altxatu
osatu	osotu	#	osatu	sendatu

TXARTO EUSKERAZ

*hogia	ogia
*jakintsua diardu	jakintsuaK diardu
*emon jardutea	emoTEN jardutea
*ordu erdi bat ariketa	ordu erdi BATEN ariketa
fisikoa egin	arriketa fisikoa egin
*osasuntzu mantentzeko	osasuntzu egoteko

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

1.- GURASOAK/AITAK

Erriak egiten dauan euskera da euskera zuzena, baiña ba-dago gramatika bat edo batzuk Bizkai'ko euskera zelan egin bear dan jakiteko arauak emoten dabezenak, orregaitik, gaur asten dogun arlo onetan geure eritxia agertuko dogu errian oker erabilten diran gauza batzuk zuzentzeko. Sarritan eztabadagarriak izango dira eta pozik artuko doguz beste batzuren eritxiak emen argitaratzeko.

Berrogeta amabi esaldi edo joskera edo berba oker erabiliak daukaguz eta urrengo zenbakietan agertuko doguz banaka.

ESALDI OKERRA: Ikastetxean: **"Zuen aitai esan egiezue eguastenean arratsaldeko 6'etan etorteko"**.

Oraindiño ez da asko zabaldu esaldi au edo antzekoak, baiña zabaldu baiño lenago zuzendu gura doguz.

Sendi-giroko itzetan euskera askoz da aberatsagoa gatzelera baiño eta gaiñera kuntze edo sexuak gaiago nasatzen dau arazo au. Esaterako: "Vuestros hijos no están motivados para estudiar". Txarto euskeratua litzake: "Zuen semeak..." Beti esan bear da. "Zuen seme-alabak...". "Semeak" esan bear da mutillak baiño ez diranean.

Baiña artu dogun esaldi okerrean "aitak" eta "gurasoak" dira gaia.

Gatzeleraz "Padres" itzak illuntasuna dauka. Izan leiteke "aitak" edo "gurasoak".

Frantzeraz be "aitak" "peres" esaten da eta "gurasoak", "parents". Euskera onetan frantzereagaz batera doa, ez ostera gastelereagaz batera.

Esaldi zuzena onelan litzake: "zuen gurasoai esan egiezue..."

Okerra geiago agertzen da oarra gasteleraz egiten danean. "Decid a vuestros aitas...". Beste era onetara esan bear litzake: "Decid a vuestros gurasos" edo "vuestros aitas y amas...".

Ez jat geiegi atsegin "aitaxus" y "amatxus". Maitasuna agertzen dan txiki-atziki edo "diminutiboa" ez da erabilli euskeran. Iñoz entzuten da gaur "mesedetxu bat eskatzen nator". Dalia dala, ez neuke ziur esango txarto dagoala, sartzen bada sartu daitela. Guk ez dogu "amatxu" iñoz esan, beti esan dogu "ama". Orain sarritan entzuten da "amatxu". Onartu beite!

2.- JO/IKUTU

ESALDI OKERRA: "Gitarra ikutu dot" "Kanpaia ikutu dau".

Esaldi oneik ez dira oraindiño asko zabaldu, baiña zori txarrez euskaldun barrien artean iñoz entzuten dira.

Erderaz bai esaten da "tocar la campana" edo "tocar la

guitarra", baiña ortik ezin artu lei baimena euskeraz esaldi bardiña erabilteko.

Euskeraz, "Gitarra jo dot" eta "Kanpaia jo dot" esan bear da. Iñoz esango ete dabe gatzeleraz: "pegar la campana" edo "pegar la guitarra"? Ez dot uste. Ez gaitzean izan euskalduna makurragoak.

3.- JON'ek/JONE'k

Oraingo onetan araua idazkera edo ortografikoa da: "Bizkai'ko" ala "Bizkaiko" idatzi bear da?

Guro idazkera-araua da: "Izen bereziak (propioak) diranean beti banandu izena ta atzikia goi-koma ori ipiñita. Eta aran onek bere oiñarrria dau. Esaldi au idazten ba'dogu: "Jonek esan dau" ez dakigu "Ion" ala "Jone" izan dan izlaria. Edo "Sanperen egon naz" idazten ba'dogu ez dakigu "Sanper'en" ala "Sanpere'n egon dan. Koma ori goian ipintea oso argibide ona da, baiña gaurko idazleak goiko komatxu orreik kentzea eskatzen dabe, idazkera gaitxago bihurtzen dabelako eta ordenagailuakaz gaiztasun bereizia dagoalako.

Arau ori nik aldau egingo neuke eta ordeaz au ezarri: Goiko komatxua kendu eta uts bat itzi.

Zelan idatzi, orduan "Olazar'tar" ala "Olazartar" ala "Olazar tar"?

Lengo oiturea aldatzea da, baiña nik beti idatziko neuke "tar» ori berezizuta eta koma barik abizen guztiakaz. Esaterako "Olazar tar». Orrelan argi dago abizena zein dan eta komatxuaren eragozpena bein betiko kentzen da. Martin'ek bai, **"Martine k" izan ez daiten.**

Martin ek edo (emakumea danean) Martine k idatzi.

3.- "-LAKO"/PORKE

Zergaitia agertzeko dan esaldia euskeraz apur bat gatxa da gatzelera erabilteko oitu garanontzat. Onetan gatzelera errezagoa da eta orregaitik doa euskerearen arerio aundia dan esaldi au. Batez be itxas-ertzeko errietan entzuten da:

ESALDI OKERRA: "Ezin dautzuk ordaindu, porke ez daukat nondik"

Gatzelereak zergaitia "porque" edo "que" aurretik ipiñita agertzen dau. "No ha venido Juan. Es que está enfermo..." o "porque..."

Bizkaiko euskereak era bi daukaz zergaitia agertzeko: "Ezin dautsut ordaindu, ez daukalako nondik..." edo "ezin dautzut ordaindu, ez daukat nondik-eta". "Porque" ori ez daigun sartu euskerara. Orrek esaldi osoa aldatzen dau eta erdeldunen pentsaerea sartzeko geurea alboratzen dau. Euskereak egiten gaitu euskaldun.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ZER JAZO ZAN PARACUELLOS DEL JARAMA⁹N? (1936-11-22)

Agintaritzak ankerraren azkenera eltzean España'tarrak "amnistia" eskiñi eta ezerezetik astea erabagi eben, naizta gero Pinotxet'eri kontuak eskatzeko lenengoak izan. Ez dot esango txarto egiña danik, baiña ha_j gogoratu au: Bere edestia aiztuten dauan erriak barrero bizi bear daua-la edesti ori".

PARACUELLOS DEL JARAMA

Erri naiko txiki baten izena da ori. Alcalá de Henares'tik ez urrin. Gaur gogoratzen dogun jazokizuna jazo zanean 1400 biztanle inguru izango ebazan.

EGUN ETA ORDU LARRIAK

Gudea as_j zan urtea bera zan: 1936^a.

Paracuellos'en urte orretako azillaren 22n. eguna baiño lentxuago lan bereizi bat egiten ziarduen: Lubaki edo 'zanja' aundi bat, egun eta ogei metro luze eta 8 metro zabal. Zertarako ete zan?

Egun beratan goizaldean larritasuna espetxean: Eguna araitu orduko espetxetik aterako ebezanen izenak esaten ebiltzazan, 8.650 izen. Guztiak larri, bakoitxak bere izena noiz entzungo. Amaitu ziran deiak eta deituak sartu ebezan autobus eta kamioietan eta Paracuellos'era eroan ebezan. Onein artean bat gitxienez bizkaitarra zan: Iruarrizagatar Juan aita, Mariaren Biotz-Semeen arteko lekaidea, Igorreko semea, bera be musikalaria oso ona eta bera baiño be ohea zan Luis Iruarrizaga aitaren anaia.

SARRASKIA

Guztiak Paracuellos'era eldu ziranean, amabosnako taldeak egin eta taldeka tirokatu ebezan: 8.650 inguri erail ebezan. Orduan jakin zan lubaki edo zajatzar aundia zertarako zan. Inguruko errietatik laguntzailleak ekarri eta lubakiaren barruan egozenen "gaiñera lurra" bota eben. Or amaitu zan dana, or geratu zan lurpean gure Iruarrizaga'tar Jon aita.

ERANTZUKIZUNA NORK?

Or ikusten da zelako basatikeria sartzen dan gizonen barrura guda sortzen danean. Olako edo antzeko jazokizunak zenbat eta zenbat!

Baiña zergaitik erail ebezan?

Lenengo eskoitarrak ziralako eta erkala edo errepublika ezkertarra zan. Errua ete da ori be'?

Eta bigarren kristiñauak zi~alako eta orduko kristi-

ñauen irakatsiak erkalaren aurka joiazalako. Gudea sortu ondoren areriotzat artzen ziralako.

Ez dakit ildako oneik gure Aita Santuak santu egin gura dauzenen artean dagozen, baiña ba-leiteke.

Eta nork dauka sarraski ikaragarri orren erantzukizuna?

Ez da erreza erantzuna, baiña ha_j esan bear da, orduan, oker ez ba'nago, Santiago Carrillo zala agintaritzaren Barru-Ministroa eta bere ardurapean egoala espetxeratuen arazoa.

BIZITZEA LABUR

Iruarrizaga'tar Juan aita Igorre'ko Errekakoetxea base-rian jaio zan. Bide zabaletik ikusten da etxe au.

Bederatzi neba-arreba ziran, zazpi mutillak eta bi neskak. Euretatik lau sartu ziran Mariaren Biotz-Semeen alkartera: Luis, Juan, Gerbasio ta Kreszentzio.

Gure Juan aita 1898n. urteko azillaren 21n. egunean jaio zan. Gazte-gaztetxua zala Bilbao'ko josulagunen elei-zan izan abeslari. Andik Balmaseda'ra joan zan Maria'ren Biotz-Seme Misiolarien lekaide-etxera, amabi urrekoa zala. Andik Segobia'ra ikasketak jarraitzeko 1923n. urtean egin zan abade. Urrengo Paris'era, Naparroa'ko Beire'ra eta Madrid'era. Toki guzti orreitan ereslari edo musiku-lan ikaragarria egin eban. 1928n. urtean "Tesoro Sacro Musical" aldizkariaren zuzendari aurkitzen dogu Madrid'en.

Ona emen, itzez itz, Luis aita bere anaiaren bizitza-edestia dan liburtik artutako azkenengo berbak:

"Guztiok itxaroten genduzan Juan Aitagandik egun aundiak eta ugariak España'ko eleiz-eresarentzat. Bere irudia azten eta gizandi biurtzen gendualako eta bere jarraitzaileen aldetik norantza doan dakian eta arrigarri zan gizon lez ikusten zalako. Baiña beste batzuk ziran Jaunaren bideak. Juan aitak 38 urte zituanean, erritarren arteko gudea sortu zan España'n 36n. urtean eta Juan aita izan zan guda orren ondoren lez il ziranen arteko bat: zemendiaren 22'an, bere urte eguna ospatu eta urrengo egunean: Madrid'eko Jarama'ko Paracuellos'en il zan".

Ona emen azken-galdera batzuk: Iruarrizaga sendiak ez dau iñor salatzen. Olako sarraskia egin ebenak zelan salatu leikee Pinotxet? Zelako astakeriak egiten diran guda sortu ezkerro! Ez da erantzukizun makala guda asten dabenak daukena!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ARRESE BEITIA OLERKARI TA SANTUGILLEARI GORATZARREA

Azilla'ren 10'an, Bizkai'ko Foru Adundiaren eta Udalaren babespean, Otxandiano bere jaioterrian, Arrese Beitia'ri, olerkari andiari ondo merezitako goratzarrea egin yakon.

Amabi ta erdietan, eta izandako elurketa lodi baten artean, Jesús Torre Jaunak irudigilleak eraikitako olerkariaren irudi-aurrean, jai onetara etorritakoak bildu ziran. Irudia estalgetu zanean, erriko abade Jaunak agurreko itz batzuk esan ebazan, erriko seme andiaren onoinenak agirian ipiñiz.

Jarraian, danok eleizara sartu gintzazan, eta alkate Jaunak aurkezpeneko itz batzuk esan ondoren, goratutako olerkariaren sendiaren izenean, Zubiri'tar Sabiñ'ek, Zearra Arrese'tar Yosune, olerkariaren billobaren senarrak, onetaraxe berba egin eban:

Aldun Nagusi Txit Bikaiña. Otxandiano'ko Alkate Jauna, eta Esther Solabarrieta Inguru Giroko Aldun Andrea, niretzat dedil andikoa da, nire sendiaren izenean, Otxandiano uriko semea izandako Felipe Arrese Beitia'ri eragin dautsazuen goratzarre au, zuei eskertzea.

FELIPE ARRESE BEITIA, olerkari bikaiña ta irudigille ospetsua izan zana, nire emaztearen Yosune Zearra'ren aitita izan zan. Aren ospea ta onbidearen zelakotasuna, ez ditut aipatuko. goratzarre au amaitu daitenean, guztiai neuk idatzitako ta BBK'k argitaratutako milla aletatik ieki bat artuko dozuelako. Olan Arrese Beitia'ren nortasuna ezagutzeko eretia izango dozue. Eta ospakisun oentara etorri zarieno, nire eskerrik beroenak.

Felipe Arrese Beitia, gitxitan agertzen diranetariko gizona izan zan: siñesmen andikoa, on-egillea, bake-zale, España'k guri kendutako foruakaitik minduta, eta euskerea ostentzeko zorian zala ikusirik, bere adiskide andia izan zan Arturo Kampion'ek esan ebanaz "Arrese Beitia'k erri baten miña abestu eban bere begiak zuzentza-aurkakotasunetik aldendu eban, baita zigorraren basakeritik be, eta eskubideen zapalketatik. Bortxakeriaren arrokeritik, gorroto zentzunbakotik, eta gure erria dan eskuzabalaren antzera, ez eban madarikaziñorik bota, ez eban apentzara deitu. ez eban zeruari tximist iltzaille-rik eskatu. Ez, ez ebazan berba mingost eta kiskalgarririk jaurti, bere euskera maitiaren eta gure foru ederretsien alde baiño.

Gure zorritxarrerarko. Orain 550 urte, Bizkai'ko Jauntza España'ko errege bategan egokitu zan, eta ordutik, España'ko erregeek gure foruak gordeko leukiezala itz emon arren be, apurka-apurka moztu ebezan, eta 1839 urtean, lenengo karlatar gudea galdu zanean, Bergara'ko besarkadaz, eta gero 1876'an bigarrena galdu zanean, Euzkadi'ri bere foruak kendu eutsoezan, dirua batzeko itun batz bakarririk utzirik. Kalte aundi bat aipatuz, gudaritza beteteko bearra jarri euskuen, gazte asko ori uxatzeko Ameriketara joatea beartu eutsela, olan erderaz ez jakitearren egiten eutsien irriakaitik alde egiñez.

Ikastoletan gaztelaniaren eragintza be jasan bear izan genduan, baita erakunde guztietan be, irakasleak, legegizonak, epailleak eta baratariak gaztelarrak ziralako, eta beraz, euskerearen etsaiak. Euskereak atzerakada andia jasan eban, gure

izkuntzaren eriotzera eroaten eban. Eta gaiñera, euskotar batzuk gure izkuntzaren amaia aldarrikatu eban: ara, Salamanca'ko Ikastola Nagusiko zuzendaria zan Miguel Unamuno'k, euskerearen eriotza abestu eban, 1901 urtean Bilbao'n ospatu ziran Lore-jokoetan, ilteko zan euskerea, ilten lagundu geuskiola lotsa barik eskatuz, olan bein betiko lurperatua izan zeiten, ama gaisoaganako seme zintzo batek izan bear dauan begirunez...

Egoera itun onetako baldintzak eraginda, Felipe Arrese'k bere olerkiak idatzi zituan, Euzkadi'ko Jekuetan ospatzen ziran Euskera ta Foruen alde 30 gorako sariak jasoten ebezala. Bere alabatxu ta emaztearen eriotzak bere erlijioño-zaletasuna ta areikanako maitasuna darie. Aurten Gorbea'ko gurutza jaso zaneke eungarren urteurrena ospatuko da, eta egun aretan an egon zan Arrese, Gorbea mendiari ta artzaiñei olerkiak aletuz.

Arrese Beitia il zanean, Otxandiano'k erriko enparantza ederra ekeiñi eutsan. Andik laster, Primo de Rivera'k euskerearekiko gorrotoz, aren izena eban eskeintza kendu eban. Errepublikak sortu zanean, Otxandiano'ko Udala ta Eusko Jeltzale Alderdia'k goratzarre ordaingarria eskeiñi eutsoen curen artean Orixe eta Lauaxeta tartekoak izanik, eta enparantzako lengo izena jarri eban. Franco'ren gudarostea errira sartu zanean, barriro be olerkariaren izena kendu eban enparantzatik. Gaur, gure Foru Aldundiak eta Otxandiano'ko Udalak, bere izena goralduten dabe ospakizun onen bidez.

Eskerrak etorri diranai, Gure Aldun Nagusiari Bergara Jaunari, Udatari, eta Jesús Torre Jaunari olerkariaren irudi ederra egin dauanari, eta ospakizun onetan tartekoak izando-koai.

Ona emen, irudiaren oiñean agertzen dan Arrese'ren olerki bikaiña:

EUSKALDUN JAIO NINTZAN
EUSKALDUNA AZI
EUSKARA UTSIK AMAK
EUSTAN IRAKATSI
EUSKERA MAITE MAITE
ZABILTZ NEUGAZ BETI
EUSKERA IL EZKERO
EZ DOT GURA BIZI

Onaiño Sabiñ'en itzak.

Jarraian, Aldun Nagusia dan Bergara Jaunak itzaldi sentikor ta ondo mamitua esan eban. olerkariaren jazoera batzuk aipatuz eta aren olerki bikain bat aletuz. Izan be, itzaldi ederra izan zan.

Onen ostean, alkate Jaunak itzaldiai azkena emon eutsen, Arrese Beitia'ren olerki bat esanez, eta gero, etorritako guztiai eskerrak emonez. Azkenean, erriko Abestalde bikaiñak, Arrese'ren olerki batzuk abestu ebazan. Eta jai amaitzeko, udalezko uztaipekoan janarixu bat eskeiñi zan eta bide batez Zubiri tar Sabiñ'ek idatzitako eta BBK'k argitaratutako Arrese'ren olerki-liburua banandu zan. Egun aztueziña, izan be.

BERTSOETAN

BERTZOLARI LEIAKETAREN AUREKEZPENA

Emen daukaguz lau bertsolari
curen habilitadea
erakusteko prest dagozanak
zuen guztion aurrean
sosketa egiñik errespetatuz
bertsolaritzan legea.
Osagillea dogu bat eta,
Alkatea da bestea,
irugarrena Epaikaria
laugarrena Abadea,
begi belarriz adi ta zoli
prest egon bedi jentea.

Neurri egokiz, rima zorrotzez,
gaiak zirikatutzea,
laurentzatbardin eskatuko da
bertso bizkor ta trebea,
doñua ere laurentzat bardin
naiz izan arren luzea.
Kontutan ez da gaurkoz artuko
abotzan goraberea,
abotz gogorra ala biguna
zeiñ ete dogun ohea,
bakar-bakarrrik bertso parea
erri maleziz betea.

EPAIKARIARENTZAT GAIA

Zu, kezka betetik zagozan
Epaikaria zara; artu egizu
betiko erabagi sendo bat.

(1)

Zuzentasuna maite duena
benetako Epaikari,
zuzen bidetik dabilzantentzat
zorioneko zaindari,
oker bidetik dabilzantentzat
zorioneko zaindari,
oker bidetik doazenentzat
skulako salatari.
Estadu mallan nagosi diran
ministro askon lanari
abegi onez begiratzea
naizta ikusiz pekatari,
ori dala'ta nire barruan
eskrupuluak ugari.

(2)

Ezin zigortuz gogorkeriaz
aundiki diran aldetik,
txiro ta ezeuki guztientzako
lege gogorra aurretik,
orra zergaitik Epaikari au
urduri dabil barrutik.
Ez da r.aikoa esku garbitze
Pilatsena egiñik,
erru bakoa urka-mendira
emidunak azkaturik,
olanik beti jarraitzekotan
betiko noa emendik.

ALKATEARENTZAT GAIA

Zuk zuere erria beti garbi
ikusit gura dozu, eta zure ordezkari
zure agindua zietz betetzea nai dozu.

(1)

Danak gustora bizi daitezen
egiten dot alegiña,
gure errian badago egon
bake santuan premiña,
batsuek alde besteak aurka
alkar konpondu eziña.
Ez da kanpoan bakarrik baita
etxe barruan bardiña,
lengo batean multatu nuan
neure alaba txikiña,
ordutik kanpo astintzearen
alfonbra baten zikiña,

(2)

Eneuke gura neure menpean
errizaiñ bertzo zalea,
gizon modura zintzoa eta
bertsolaritzan trebea,
aizkide dodan albokoa ri
ona egin eutson bereak.
Bakotxa berak garbitu begiz
norberen etxe aurreak,
agindua zan olantxe baña
aldatu eban besteak,
bakotxa berak garbitu begiz
norberen atze-aurreak.

OSAGILLEARENTZAT GAIA

Zu, bularretik gaizorik zagozan
Osagillea zara. Osatu al zeinke
zeure burua?

(1)

Osagil lagun baten aginduz
bear nitz ala atera,
neure zeregin danak itxita
aize ederrak artzera,
ori dala'ta urten nuan nik
orain nagon erbestera;
neure senide ta aizkide danak
itxirik alde batera,
bake santua oba zala'ta
eldu naz bakardadera,
emen bizi naz ezin garaituz
errimiñaren tristura.

(2)

Osagillea naizen ezkeron
olan agindu dot beti,
ñon aurrean eneuke gura
iñoiz agertu guzurti,
birientzako kaltegarri dan
zigarro bear da jaurti.
Iñori beti gogor galazo
baña neureari eutsi,
iñorentzako ona doguna

norberentzako be egoki,
olan da baña bizio txar au,
neure jauk ta nagosi.

ABADEARENTZAT GAIA

Zu abadea zara ¿Erantzun zeinke
nun ete dagon emakumeen edertasuna?

(1)

Auxe bai dala korapilloa
abadeari egiña,
ez da erreza
azkatutzea
egiñ arren alegiña,
nor demontres dan asmau dauana
benetan dogu zorgiña.
Emakumeak ez dira danak
edertasunez bardiñak,
naita Jainkoak bere gustora
izanik danak egiñak,
eurek ostera curen erara
apaintzen dituguz fiñak.

(2)

Ez dakit zelan euskera garbiz
deituko andren sostenak,
iñork badaki betor gugana
ta esan bekiguz gugana
ta esan bekiguz onenak,
nire ustean guztiz egoki
deitzea titi kapelak;
batsuek daukez, etxuraz beintzat,
izerdiagaz ustelak,
beste batsuek barriz ostera
almidoiak in lerdanak,
orra zergaitik diran galantak,
engañuz andra geienak

GOTZAIN JAUNAREN BAIMENA TA ONESPENA

Emen agertzen bildur nintzan da
eskatu nuan baimena,
nire Gotzañak erantzun eustan!
zu bai zarala kirtena!
alan da guzti ere badaukak
nire gotzaiñ onespena;
baña trukean eskaritxo bat
badakit egin neikena,
ikusle-entzulei abade moduz
sartu benetan eztena,
beti ta edonun maite dagien
ALKAR MAITASUN KEMENA.

EGUEN-GUREN! EGUN ZORUNA!

Jaunak aintzat autatua,
kristiñauentzat testamentutzat
emon nairik agindua:
"Alkarren arte maite zaiteze"
danoi diñosku Jainkuak,
eta onetantxe izango dira
benetan ezagutuak,
nire seme ta jarraitzalleak
direan kristau sintsuak,

naiz españarrak naiz euskotarrak,
agerturik baketsuak.
Siñismenean loka
dogu Euskalerrri,
errudunak zeñ diran
ezin leike igarri;
Obatzat zalakuan
guda izugarri,
anal artera euskuen
tamalez ekarri,
geituz gure artean
gorroto ugari.

Ez da naiko iñori
errua ezarri, .
norbera eskuk garbituz
iñuzente jarri;
maitasuna dalako
siñismen oñarri,
alegindu gaitezen
parkatzen alkarri,
GURE PORTAKIZUNA
BETI TXALOGARRI,
JOKABIDE ZUZENA
BETI GORAGARRI.
Lertibe

AGUR...

Agur jaun andre aipagarriak
ordu ontako zorian,
egun ederra ospatzen gagoz
Naparruako lurrian,
emen daukaguz gure anaiak
euzko mendien oiñian,
jatorriz gara Aitorren seme
Napartarrekin batian.

Anai arteko bazkari ontan
artu nire guraria,
poza daroan euskaldun itza
eta ongi-nai bizia,
bazkal orduko edertasuna
izan dedilla grazia,
Euskalerrriko mai ederrean
aupa... euskal anaiadia.
On dagiala jaki guztiak
ta ez kalterk edanak,
oroimen on bat itzi dagizkun
zorioneko egunak,
nora nai adi ederrak dira
alkartasunezko tzak,
gora ta gora jas daiguzan
Euskalerrriko bazterrak

PAULIN



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

BERTSOETAN

BARANDIARAN-LEKUONA

Berezko lotsaz itza artu dot
alaitasun guztiagaz,
euskal gizandi biren aurrean
asmetan dodan griñagaz,
Euzkadi dana dagola, emen,
deritzait maitasunagaz,
gora ta gora jakituria
egin dan on guztiagaz.

Baserri eder, txuri, maitiak
izan ziraden kabiak,
nork esan eiken, nun, sortu
zeizken
ain izan aundi argiak,
baña grazia mendian dago
argiturik eguzkiak,
zelai artean sortu zirian
aurtxo bi zoragarriak.

Euskalerriko lora bikaiñak
isten doaz baserria,
jakituriz ta gizontasunez
ornituzeko bizia,
urterik urte apaintzen doaz
buru ta biotz guztia,
gogo onenaz, pozik, artzeko
apaizaren arduria.

Arlo ederra dago aurrian
Euskalerrria osoan,
biaña erraldoi sendoak datoz
lan egiteko asmoz,
itxaropena ba-dau erriak
sorterriko apaizgoan,
jakituria, atxur ta grazi
ibiliko elkargoan.

Mendirik mendi, lagunik lagun,
erri guztia jorratzen,
urterik urte aldi ederrak
egin ditue landutzen,
ez da mendirik, ez balardirik,
astertu bage geratzen,
gure lurralde aintzagarriak
egia dabe autortzen.
Zuen ikasle izan giñanak
gaur, gara ziñaldariak,

jakituria aundia ba-zan
izateko erraldoiak,
gizontasuna ta apaltasuna
zeunkezan arrigarriak,
egi egitan, onek zirian
gizonen aundigarriak.

Euskalerrriak ixiltasuna
izan dau sendagarria,
emen erria, emen gizonak
erraldoi jakituria,
gure asaben jatorri zarra
azur ta izkuntz beria...
lur erraiek agertu dabe
gure izate bizia.

Au da bidea, jakituria,
gizonen jokabidia,
erritar izan, errian batu
bertan dagoan gauzia,
orren eredu izan ditugu
bata lez beste aundia,
aurrerantzian, argi, dakusgu
nun, dagoen oiñarria.

ELORDUI TAR PANTALEON

Lur biribillak gauza asko ditu
bizigarri ta ederrak,
muru ta mendi eta itxaso
jakituriz apainduak,
gizon almenen goitikan dagoz
ortzi aldeko izarrak,
gabar argitzen mendi tontorrek
eta arrua barrenak.

Lur eder ontan jarri zituan
lagunak bere antzera,
aberri on bat lortu egien
beren aginduetara,
irakasleak emon eutsezan
zuzenduteko bidea
erreñu on bat sortu egien
Aitaren gogoetara.

Zu, Pantaleon, deitua ziñan
arazu aundi onetan,
ardi ta bildotz goratuteko
zoriontasun bidean,

berrogetamar urte ederrez
saiatu zara lanean,
ekiñaldia urrezkoa da
artzaintza lan ederrean.

IZKUNTZ

Izkuntz eder bat ba da
jakituriz beterik
euzkoen lurrean,
urree dariola
diñoie jakintsuak
izkien artean.

Zer daukazu lur aratz
zure errai garbiana
itza dariona,
jakituria al dozu
zure biotz barruan
zorutzen dabena...

Izkuntza jakintsua
egiz, maitagarria
dau Euskalerrriak,
birau zakarrik ez dau
ta argia dau gidari
euskaldunen miñak.

BASERRIA

Euzko lorea zara
mendi ta zelaietan
bizia jarrita,
or jaio izan ziran
seme-alaba onak
zentzunak zainduta.

Zer dozu euzko lurra...
zer dozu basetxea
zure erraietan...
lorerik ederrenak
zabaldutuz munduan
egi omenetan.

Nork argitu zinduzan
ainbeste lora eder
sortzeko zelaian...
poztu zaitez baserri...
ondo egiña gaitik
mundo zabalian.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

"EMOITZA" BERBEA EZ DAGO TXARTO

Okertzat artu eben Euskaldunon Egunkariko Bizkaia geigarriaren "Okerrak Zuzentzen" sailan leengo aldian berba orren erabilkerea, **emoitza** baino *emaitza* berbea ontzat artuta. Egon be, eurak oker dagozalakoa daukat eta uste dot oker esan ebena arteztu bearko leukeela, agirian jakina, irakurleak jakin daien, *emoitza* berbea bizkaieraz ondo be ondo dagoana, Bizkaiko euskerearena dalako. Bizkaiko euskerearena esan dot eta Orozkokoa da izan atan be. Alantxe dakar R.M. Azkue orain dala 100 urce idatzitako "Diccionario Vasco-Español-Francés" (1902) iztegian. Ara jo ezkeru, urrengo oneek irakurriko doguz:

EMAI: 1. (B, are), dádiva; cadeau. 2. (L), var. de eman en algunas relaciones; var. de eman dans quelques relations. 3. (B-i), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par lequel sortent les humeurs mauvaises du corps.

EMAITZ: 1. (BN, G, L, S) dádiva, regalo; cadeau récompense. 2. (BN, Sal), abundante generosidad; largesse, grande générosité. 3 (BN, Sal.), censo, canon; redevande, dime.

EMOI: 1 (B), dádiva, regalo; present, cadeau. 2 (B), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par ou sortent les humeurs mauvaises du corps. 3 (B-o), var. de emon en algún derivado; var. de emon dan quelque dérivé. Emoiten: dando; donnant. Emoiteko: para dar; pour donner.

EMOITZA: (B-o), dádiva; don.

EMOKARI: (B), dádiva; don.

Beste iztegi batzuetan be antzerakoa dakar, alan bada:

"Diccionario Retana de Autoridades del Euskera" (1976) iztegian, aurrean esandakoari urrengook geitu leitekioz:

EMAITZ: L Fruto. II. Entrega, donación. III. Dádiva, regalo. IV. (BN, Sal.) Abundante generosidad. V. (BN, Sal.) Censo, canon.

EMAITZE: Don, regalo (S)

EMOITZA: (B-o) Dádiva.

Aita Plazido Mujikak egindako "Diccionario Vasco-Castellano" (1981) iztegian:

EMAITZA: 1. (c) dádiva, regalo, don, presente. 2. (c) donación. 3. BN generosidad, largueza, liberalidad. 5. BN tributo, censo, impuesto, contribución, canon, pensión anual. 6. beneficio. 7. fruto, producto. 8. resultado (Aritm.) resultado de una operación.

EMOITZA: 1. B dádiva, don, regalo, presente. 2. B. donación.

Mitxelena "Orotariko Euskal Hiztegia" (1987) dalakoan:

EMAITZA/EMAITZ (G, L, BN, S)/EMAITZE (S)/ **EMOITZA** (V-oro): 1. don, regalo, dádiva. 2. fruto, resultado.

Alderdi bategik, iztegi guztiok bat datoz *emoitza* berbea ontzat artuten, euron egileak Bizkaiko eta jatortzat artu dabe, ganera.

Bestetik, berbeta modernoan sarritan berba batzuk dauken esangureari beste bat edo batzuk geituten jakoz. Esaterako, *arazo* berbeak, gaur egun, gizarte modernoan, geuretariko asko ta askorentzako "problema" esangurea dauka. Zaarentzako, ostera, Bizkaian beintzat, "ataca, zeregin" esangurea eukiten izan dau eta ez besterik. Betiko esangura ori, gaur egun, baztertuta eta askorentzako guztiz ezjakinean lotu da. Alantxe ainbat eta ainbat berba, euskalki guztietakoak.

Zergaitik mugatu bear jako arlo semantikoa *emoitza* berbeari, *emaitza/emaitz* berbeari ori berori ez bajako egin? Baturako *emaitza* berbeari arlo semantikoa zabalduetea erabagi badabe, bada, bardin-bardin egin leiteke bizkaieraz geure berbak dirala eta. Alandaze, erderazko "resultado, résultat" adierazoteko, bizkaieraz, *emoitza* berbea erabili ezkeruan, ez leuke ori inork txartzat artu bear, bestetara baino.

Iniaki Martiartu

UMEAK ONDO EZI EGIZUEZ

ETA EZ DOZUE GERO

BURU-AUSTERIK IZANGO

Pitagoras'ek

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ETXE-IZENAK ETA ABIZENAK

Euskaldunen mundu ederrean arlo asko daukaguz bakoitxak aztertu barik, eta arlo arrigarriak dira.

Oraintsu sartu naz etxeen eta abizenen mundua apur bat aztertzeraz eta or aurkitutako jakingarriak eta gure base-txeak non eta zelan dagozan ikusita, arrituta geratu naz.

Gaiñera or euskereak izan dauzan itz eder asko aurkitu dodaz, gaur egun galduak eta oso egokiak. Gure osabak jakituri aundia agertu ebela izenak ipinten eta abizenak artzen, argi ikusi dot.

Iru adibide ipiñiko dodaz: Andeko ta Botiola Fruizkoak eta Olagorta Gamizkoa

Andekon izen oneik dagoz: Andeko-Aurtenetxe, Aurrekoetxea, Andekoiti, Etxetxikarra, iru Batiz (Goikoa, Bekoa ta Erdikoa) eta errota bat, Gomoa.

Azte-_{rtu} daiguzan: Azterketa onek gaur g al dua dan "Andeko" izeneko etxe bat eskatzen dau, lenengoa, zarrena. Geroago egiña orren au rrean dagoana, Aurrekoetxe. Eta beste bat gorago egiña Andekogoiiti, geroago "Etxetxikerra". Or jkusten da ain garrantzi aundiakoa zan etxeko jaunaren seme edo alabaren bat ezkontzen zanean, aurrean edo gorago, txikia edo aundia, beste etxe bat egiten ebala. Gaiñera beste bat dago batiz deritxona. Etxe onetako jaunak be beste bi egin bear izan ebazan, bata Batiz-bekoa eta beste Batiz-erdikoa. Olako jru etxe izen batekoak Euskalerrri osoan daukaguz.

Eta geiago oraindiño, barren-barrenean errotea dan Gomoa. Lenengo errota utsa eta geroa errota-gaiñean etxea.

Botiolan etxe oneik daukaguz: Goiri, Azkarre, Uriarte, Jauri, Lezamiz, Etxebarri, Iburguen, Ormaetxe, Legarreta, (Errotea).

Guztjak jaun-etxeak, etxebarri izan ezik, au areitariko batek egindakoa. Iburguen, bean dago, ibarrean, baiña Gomoatik asita, ibararen goiengan, ortik "guen" atzizkia. Eta emen be barrenan errotea: Legarreta.

Gamizko Olargortan: Etxezarre, Aurrekoetxe, Bengoetxe, Landakoetxe, Goikosoloeta ba Bizkarreane.

Lenengo etxeak Olagortā izango eban izena baiña izen au auzoarentzat izteko. Etxezarre ipiñi eutsoen izen. Eta gero jaun orrek sendia zabalduz, etxe barriak egin bear izan ebazan, Aurrekoa, Berengoa, Landakoa eta Goikosoletakoa. Eta bear ba'da kanpotik etorritako Bizkarra batek egin eban "Bizkarrene". Ori agertzen dau norena dan igarteko dan azkenengo "-ne" orrek. Zaindu dagiguzan gure baserri zarrak!

Abizenak aztertzeke iru gauza artuko dodaz kontuan:

Zer elan nai dauan, noz agertzen da izen ori eta non agertzen dan.

ABAITUA: Sorlekua Begoñan eta Berrizen dauka eta Berriztik Txilera aldatu zan.

"Abi" erderezko "arandano" da eta abizen onek olako landaraz beterik dagon tokia esan nai dan. (Bilbao, 1664).

ABALIA: (Bidania, 1665) Gipuzkoako Beliarraien'en sortua da eta zurbaltza edo "carrasca" esan gura dan. Gipuzkoako erri askotara, zabaldu da eta Bizkaian be bai, Lekeitiora esaterako.

ABANDO: (Bilbao) Gaur Bilbao dan Abandon sortua da eta Arando'ren aldakuntza dala dirudi, "aran" asko dagoan tokia. Arana erderazko "endrin" da. Ortik Patxarran edaria.

ABAROA: (Zumaia, 1470) Abereak atsedenean dagozan lekua da abaroa eta Bizkaiko itxasaldean zabaldu da abizena, batez be Mundakan, Sukarrietan eta Lekeition. Mungian be ba-dago etxe bat "Abaroeta" izena dauana.

ABARRATEGL• (Arrasate, 1657) Elorrietik urtena e j da eta Euskalerrri osoan zabaldua. Egurra edo sugarria, abarrak, dagozan tokia da.

"Abaitua" ren antzeko jatorria be izan leiteke eta orduan, "carrasca" asko dagon tokia izan leiteke.

ABASOLO: (Bilbao, 1775) "Aba" jatorria izan ezker, "carrasca" k dagozan soloa izan diñoanez, izan leiteke Abat-solo edo "abadearen soloa" be.

Zeanurri as j eta Bizkai guztira zabaldu da, baita Txilera be.

ABAUNZA: (Berantebilla, 1584) Bizkaian, Araban eta Laburdin agertzen da.

"Abaun" arana bera izan leiteke eta "tza" k ugaritasuna adierazten dau.

ABERASTURI: (Aberasturi-Araba 1313) Gipuzkoan eta Zuberoan dan jatorria. Mitxelenak aberats dirutsua dala diño, baiña "aberats" beste jatorri batzun antzera, "carrasca" asko dagon tokia da. Uri ez da besterik mendiaren aldapa baiño. Orduan "Karraskak dagozan aldapa".

ABIO: (Azpeitia) Zabal dabil Bakion eta Mungialdean baiña Gipuzkoan eta Araban be ba-dago.

"Abi" jartorritzat artu ezker arandanoak dagozan tokia da baiña "agiña" deritxon zugatza be izan leiteke eta onen senideak litzakez "Agino" ta "Egino". Lenago "Abio" barik "Abino" izango zan.

ABOITIZ: (Ondarroa) Ondarroatik urtena da eta aboiak edo arandanoak dagozan tokia dirudi. "-itz" uga ritasuna adierazteko da.

ABONA: (Zamudio, 1716) Zamudion dau jatorria eta "abon" artatxikia edo "mijo" da.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

GIZAKIAREN EDESTIA ETA (3): TXIMIÑIOIAK, GIZAKIAK ETA LANABESAK

Gizakiaren ezaugarri bat da lanabesak egitea da, baiña zelan egiten dau ori?

Aurrean daukan gaia (arria, azurra, egurra) artu eta buruan daukan irudia gai orreri ezarri elburu bat lortzeko.

Ori argitzeko, ona emen Migel Anjel ospetsuaren esaldi bat: "Nik egiten dodaz arrizko irudiak, esaterako Dabid'en edo "Ama Errikutsua"rena (Piedad), an egozan lendik eta nik ez dot egin besterik gaiak geiegi eukana kendu baiño".

Olako zerbeit egiten eban antxiñako gizonak, lanabesak, esaterako aizkorea, egiteko: Arriak geiegi eukana kendu.

Baiña itaun bat egin daigun: Ez ete dago gizakia ez dan eta lanabesak erabilten dauzan primaterik:

Bai, ba-dagoz, baiña alde bat ikusten da gizakien eta primateen artean: Primateak, esaterako txinpanzeak, erabilten dabez lanabesak, baiña aurkituak, ez egiñak. Esaterako termitak curen zulotik aterateko abartxuak erabilten dabez, orretarako leundu be bai alboko abartxuak kenduta, baiña lanabesa eginda egoan, ez zan bear argitasun aundirik elburura igaroteko. Gizakiak baiño ez dakigu buruan daukagun irudia arriari edo azurrari eta egurrari emoten.

Arrizko lenengo lanabesak Oladavai'koak dira, oso xumeak: Arriak landuta, esaterako txopers'ak, alde batek bakarrik landuak edo laskak, arritik zozpal lez atareak eta landubakoak. Olako lanabesakaz janariak ebagi eikeezan, txakur-agin (kaninoak) ain laburrak eukjezala-ko.

Baiña ez uste izan gizakia izatera eldu ez diranenatzat olako lanabesak egitea ain erreza danik: Jakitun batzuk alegindu dira txinpanzeari ori egitea irakasteko. Kanzi zan txinpanze onen izena eta txinpanzeen anean be zurra agiri zan. Kanzi'ren aurrean sarritan egin eben au: Arria

ipiñi zorrotz, ebagiteko, eta gero arri orregaz kordela ebagi kutxa baten barruko janaria aterateko. Kanzi'k arin ikusi eban laskak onak zirala, eta onenak aukeratzen be ikasi eban, erabilten be bai, baiña bere alegiñak alperrekoak izan ziran laska orreik egiteko. Or ez eban aurrerarik egin Kanzi errukarriak.

Ezintasun ori txinpanzearen eskua dan lakoa dalako ete dan susmoagaz, gauza bardiña egin zan beste era bateko eskua daukan "Australopithecus afarensis" bategaz. Onen eskua gurearen antzekoa da eta berau ba-da txinpanzearen beste buru-argia, baiña ez eban bear jateko laskakaz ebagiterik, euren txakur-agiñak (kaninoak) obeak ziralako. Gero gizakiak be bear izan ebezan laskak, piztien narrua naiz giarrea ebagiteko.

Arria bai erabili eben beste gauza batzutarako: Azurra apurtu eta barruko una atera, txinpanzeak ba ba-dakie intxaurra lurrean ipiñi jungeda lez eta maillu antzera beste arri bategaz joten eta apurtzen.

Lanabesen ertz zorrotzak beste lan batzuk egiteko be bear ebezan gizaki areik, parantropoak: Landarak ebagiteko eta bedarki gogorraj jo eta jo biguntzeko. Eta ori lenengo gizaki areik arrizko lanabesakaz egiten eben.

OLAZAR'tar Martin'ek

ESKATZEN DAUTZUDAN **BURDIÑEA**

BIZKAI'KOA DA, BERBAZ LABURRA,

EGITEZ LUZEA

Tirso de Molina

EUSKERAZALEAK: URTEKO **BATZAR** NAGUSIA

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 2002'ko urtarrillaren 31'an gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'etan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz.

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
- 2.- Diru -egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskaerea ta itaunak.

EUSKERAZALEAK: **ASAMBLEA** ANUAL

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la próxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el día 31 de enero de 2002 a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociación y con el siguiente orden del día:

- 1.- Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la Asamblea anterior.
- 2.- Estado de cuentas.
- 3.- Memoria de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EDER-LANAK (3)

ESKORIALA

Illuna, otza ta ezkutua batzuntzat, aundia ta oroi-garria beste batzuntzat, or daukagu 5 260 270 dukat kosta zan, eta jauretxea, monastegia ta illobia batera dan etxe-eder au. Guadarrama mendian dago atxartean bakarrik eta II Felipe k egiteko agindu eban ezkeru beti izan dauz aurkalariak. Batzuk amaika alperreko diru sartu zala or diño. Oneik, Errege-inguruko aundikerietarako baiño ez dauala balio diño, beste batzuk, baiña españatarrentzat ez da besterik Eskorialeko Lorentzo deunaren Errege-Monastegia baiño. Don Kixote elertian dan lez da etxegin-tzan Eskoriala.

Gaurko edertilariak maite dabe ainbeste edergaillu dituan etxe-eder au: 16 be-barru, 2 673 leio, 1200 ate, 86 mailladi, 88 iturri eta ibiltoki. Guzti onein luzeera batera jo ezkeru 160 km.

Herrera-tankerakoa da, 1530n. urtean asita 1597m. urtera egiña, Herrera bera II Felipe erregearen etxegin zala. Argiñak erregearen aginduz euskaldunak izan ziran eta urtean dagoan "Mingorria" errian bizi ziran.

Madrid ez zan oraindiño Españaren uriburua, baiña II Felipe k guda irabazi eutsen frantziarrai San Quintin'en 1557'ko dagonillaren 10n. egunean, San Lorentzo eguna ain zuzen, eta guda ori irabaztearen gomutaki lez egin zan monastegi au. Orregaitik oiñarria parri-lla baten antzekoa da, San Lorentzoren martiritza gogoan izateko.

Lauki luze bat da, 207 m. luze eta 161 zabal eta lau zokoetan lau torre dauzala.

Erromako San Pedrorra begira dago eta erregeak ez eban ezer gura beretzat atsedena artzeko gelatxu bat baiño. Gaiñera Museoa, liburutegia ta errege-illobiak daukaz barruan. Lurpeko eleizan V Karlos bere aitaren gorpua illobiratu eban erregeak eta alboan illobi bat utsik, idazki onegaz: "V Karlosek bera baiño geiago izango dan ondorengo ba'dauka, emen dauka lekua". Toki ori utsik dago gaur be. Erregeak ez eban uste or egoteko duin zanik. Gogarratu "Azpiratu eziña" eritxon itxasontzitegia zelán izan azpiratua. Erregea otoitzle-kuko bazter baten il zan, bakarrik, Antonio Perez, erregea saldu eban laguna, alboan ez zala eta altara nagusira begira.

Ondorengoak apaingarri geiago ekarri eben monastegi latz onetara.

Eskoriala gaur munduan diran etxe ederren artean ederretarikoa da.

ERROMA ZARRA

K.a.tik 753n. urteko jorraillaren 21n. egunean sortu zan Erroma, Tiber ibaiaren ondoan Romulo eta Remo anaiak irasle zirala. Geroago zabaldu zan zazpi mendimuiñoen gaiñera.

Gaur geratzen diran ondakiñen artean, Erroma ko forua da tokirik aundiena, Kapitolio, Palatino eta Eskilino'ren erdian dago foru au, 1000 urtean munduko forurik onena izan zan tokia, azokak eta batzarrak egiteko ta zuzentasuna ezarteko zan lekua. Urrengo agintari nagusiak or inguran egin ebezan oroitexerik onenak: Basilikak, jeuretxeak, gorespen arkuak eta agintari orreïn omenez egindako irudiak: Kaiser, Augusto, Bespasiano, Tiberio, Sebero ta abar. Or inguruan egin jakezan jauretxeak jainkorik aundienai: Jano, Saturno, Kastor, Besta, Remo ta Romulo. Enparantza ain zabal eta ederra oroitexez bete zan, dana artzuri ta urrez jantzita. Ez zan agiri lengo zabaltasun ederra. Beste leku batzuk billatu bear izan ebezan.

VI gizaldian asi ziran jausten oroitexerik orreik. Batzuk kristiñauen eleiza biurtu ziran, beste batzuk arrobi baliagarri. Ondakiñak lur-gaiñean 13 m. eukitera eldu ziran.

XIX gizaldian asi ziran lurpeko billatzailleak euren lana egiten, antxiñako Erroma aurkitzeko gogo biziaz. Or egoan Koliseoa eta onen sarreran Neron'en irudia: 50.000 lagun jesarrita sartu leikez ikustegi orretara eta munduan izan dan antzokirik aundiena da. K. a.'tik 80n. urtean egiña da eta asierea emoteko 100 eguneko jaiak egin ziran: espatalariak 5.000 basapizti il ebezan, burrukak ugari, eta geroago kristiñauak millaka zigortzeko ta ilteko lekua izan zan. Orrelan poztuten eben ogia eta ikusgarriak eskatzen ebazan erri ankerra.

Lau etxe-mailla dauzaz, elipse itxuraz eta luzeera 188 m'koa zabalerea, barriz, 156 m'koa. 400 urtean irau eban etxe-eder onek eta ormak osorik egon ziran 1000n. urtera arte. Orduan asi ziran arrobia ba'litz lez arriak kentzen. Dana dala, gaur be Erroma ren indarra ta aunditasuna ondo erakusten dauz.

ERROMAKO KEPA DEUNAREN ELEIZEA

Kepa deuna dala diño batzuk Erromaren irugarren iraslea. Orregaitik egin zan Santu onen illobi-gaiñean eleiza eder au XVI gizaldian, munduan dan eleizarik aundiena ta ederrena.

Eleiza au egiten 120 urtean egin eben lan etxegiñik



eta ertilaririk onenak. Altara nagusian esaten dau mezea Kristiñauen buru dan Aita Santuak eta ortxe iragarten dira dogmak naiz santu barriak.

Gaurko eleiza eder au baiño lenago, antxe egoan Neron'en zirkuaren ondoan bost errileku eukazan Kepa Deunaren eleiza bat, I Silbestre Aita Santuak eskatuta Konstantino'k egin eban eleizea. Eleiza orretako altare-aurrean artu eben koroia enperadore askok, esaterako 800n. urteko Jaiotza-egunean Karlomagno'k, koroiz ezarle III Leon aita santua zala.

V Nikolas aita santua asi zan eleiza barri bat egiten, 1452n. urtean, baiña andik irugarren urtean aita santua il egin zan eta lanak gelditu. Ormak metro bat baiño ez euken.

Berrogeta amar urte igaro ziran ezer egin barik, baiña II Julio aita santuak beretzat illobi eder bat egitea nai izan eban eta lan au Florentziako Dabid egin eban Migel Angeleri agindu eutson. Lenengo illobi ori ipinteko toki egoki bat aurkitzeko agindua emon eutson. Onek asita egoan eleiz nagusiaren ormen gaiñean zala toki egokia esan eutson. Orrelan sortu zan eleiz aundi ori egitea jarraitzeko asmoa, barruan II Julioren illobia izatekotan. Aita Santuak Bramanteren egitasmoa onartu eban eta geiago barik asi ziran lanak 1506n. urteko jorraillaren 18n. egunean. 1514n. urtean il zan Bramante eta ondorengoak bizi-bizi euken eztabaidea, eleizearen barrua kurutzte greziarra ala latindarra izango zan. Migel Anjel'ek erabagi

eban kurutzte greziarra artzea eta III Paulo'k oneri emon eutson lanen zuzendaritza. Migel Anjel'en lanik onena kupulea izan zan. Berak ez eban amaitu ondorengoak baiño.

1606n. urtean V Paulo'k barru kurutzte latindarra artu eban. 1626n. urteko azillaren 18'an sagaratu zan eleizea eta Berninik artu eban eleizea ta ingurua dana amaitzeko agindua. Altare gaiñea egin eban, baiña bere lanik ederrena aurreko plazan dan agedia da, Berniniren agedia. Berak asmauak dira plaza eder orretako 284 ageak eta 88 zutabeak. Bere asmoa dira baita, agedi ori apaintzen daben gaiñeko 162 irudiak. Plaza onen erdian dago 25 m'ko goierea dauan obeliskoa. Au Kaligula'k ekarri eban Ejiptotik Erromara eta 1856n. urtean ipiñi eben gaur dagon lekuan.

Eleiza aundi ta eder au egiteko 3.400 milloiz pezeta bear izan ziran eta orreik lortzeko bulak zabaldu ziran mundu guztian. Jokabide onek Lutero'gan sortu eban asarrerik aundiena, bear ba'da bere ordenako lekaideai emon ez jakelako zabaltzeko eskubidea. Beste zio askoren artean au izan zan bat Eleizea Europa'n zati bi egiteko eta ondorena gaur arte daukagu begien aurrean. Ez da erreza Eleizan, Kristo nai eban lez, guziok bat izatea.

Eleiza au ez dago sortaldera begira lenagoko eleizak lez, eleizea "des-orientada" dagoala diño.

OLAZAR' tar Martin'ek

GURE LURRA ETA GU LURTARROK (ETA VII): ARRI-BARRI ALDIA

Iru milla urte inguru Kristo'ren aurretik aldakuntza aundi bat sortu zan orduko gizakien artean: Eizan eta janari-billa ibiltera beartuak izan barik, etxean izango ebezan abereak eta igaliak. Jokabide au emen eta Europa osoan zan ezaguna batera. Auntza, ardia, txarria ta beia izan ziran lenengo ezi ebezanak. Ardia ta auntza ez dira Euskalerrikoak ekarriak baiño.

Bizi-era barri au oso atsegin izan jaken euskaldunai eta nckazaritza alde batera itzita, abelazkuntzara sartu ziran edesti-aurrean. Laster agertu zan nekazaritza toki batzutan. Aurreko aldian erti-lan ederrak ebin ba'ziran be, aldi barri onetan ez dago olakorik, buztin-lan batuk izan ezik. Aldi onetan edo laster beintzat, euskeraz itz egiten zan. Sortu jaku ba, gure Bizkaia. Dolmenak edo triku-arriak eta menhirak dira aldi onen ezaugarri eta olakoetan egiten ziran aberatsen illobiratzeak. Olako gai batzuk batuta, cromletxak sortu ziran. Mendietan ugari dagoz arri-aundizkoa deritxen eta artzaiñen aldikoak diran oroitarri oneik. Euskalerrri osoan 500 aurkitu dira.

2000 urte Kristo'ren aurretik, Abraam bizi zan aldi inguruan. Bizkaian erlejiño-giroko aldaketa aundi bat egin zan: illobiratzeak toki baten egitea eta erlejiñoak berak be illobi-giroa artu eban, baiña emengo artzaiñak ez eban ain arin onartu, toki baten geldi egotea eskatzen ebalako eta artzaiñak ori ez dabe nai izaten.

Metalen aldiak ez eban artu indar aundirik kobreak eta brontzeak. Olako bundinki gitxi agiri dira emengo illobietan. Illobiak ugariak diralako esan lej Bizkai'ko biztanleak ugaritu egin zirala aldi onetan.

Brontze-aldian Europa'n nckazarien eta artzaiñen arteko burukea sortu zan, 1400 urte inguru K.A. Burdinak gorde egin bear izan ebezan eta olako toki bat aurkitu eban Barandiaran'en Bolibar'en. Aldi onetan itzi ziran leizak eta basetxeak egiten asj ziran (400 urte K.a.).

Europatarrak be etorri ziran gure artera, Naparroatik, baiña ez ziran sartu Bizkai-barrura. Dana dala lekuko ezaugarri bi daukaguz: Durango'ko Mikeldi eta Meñakabarreneko "estela" Emerando'ko eleizan. Aldi orretakoa da Nabarniz'ko toki itxia eta ordukoak toki-izen asko. Bizkaitarrak ez eutsoen jaramon aundirik egin eta artzain arduraz jarraitu eban.

Aldi orren urrengo erromatarren giroa dator gure artea. Erromatarrak bakea egin eban euskaldunakaz Kristo jaio baiño lentxuago edo gerotxuago. Itxasertzetan ipiñi ebezan curen tokiak esaterako Foruan, eta erromatarren kultura kosta-aldean sartu zan geien. Fruniz'en dago illarri bat Kristo baiño eun urte lenagokoa eta Morga'ko Gerekiz'en agertu zan laugarren gizaldiko arri erromata-

rra idazki au ebala: Aesemproniae conjugi suae posuek memoriam. Cons. CCCC.

Erromatarrak asko indartu eban nekazaritza: Garia eta antzekoak lantzen ikasi gendun eta arlo onetako izen asko andik etorriak dira: Keriza. Baba, porru, pago, solo eta abar. Ortik etorri zan baita burdiña lantzeko zaletasuna gure erdi-arora eta gero ia gaur arte.

Bizkai'ko biztanleak beti izan dira erlejiño-zaleak. Arri Zar aldian gurtza-toki batzuk eguzkitan egozan, esaterako Karrantza'ko Benta Laperra'n, beste batzuk, osterea arpeetan, esaterako Santimamiñe'n eta Arenaza'n. Toki batzutan eizagaz dan zer-ikusia baiña ori ez da agertzen Bizkaia'n. Emen totem edo erlejiño-giroko piztiak dirala dirudi. Baiña irudietan ez da agertzen zer egiten eban. Abestiak eta gorputz-eragiñak zalantza barik. Geroago agertu ziran aztuak eta sorgiñak eta olakoak.

Arri Barri aldian erlejiñoa geiago alkartu zan eriotzeagaz eta illobiakaz. Dolmenetan eta leizetan egiten ziran illobiratzeak, dolmen bakoitxean bat edo bi. Artzain aberatsak leku bereziak daukez eta bitxi baliotsuak inguruetan.

Arri Zar aldian indar aundia euki eban Biakaia'n edertilanak. Santimamiñe'ko leiza naikoa da ori baiezatzeko. Margolan au Auñamendi giroko margolariakaz batera dator.

Arri Barri aldian Bizkaia'n dolmen edo triku-arrietan ez dago jatortasun aundirik. Gure triku-arriak geienak apurtuak izan dira baiña ez dira besterik lau-bat arri-losa edertasun barik ipiñita baiña.

Metalen eta Burdiñaren aldian be ez dago beste toki batzutatoko beste eder-lan:

Amaitu daigun "Gure lurra eta gu lurtarrok" deritxon idaz-lanen moltzo au. Irakurleak ikusiko eban lez, oso jakingarria izan da lurra sortzearen aldia ez ostera gizakia agertu zan ezkerre idaz-lanak, baiña nik aurrean aurkitu dodana agertu dot eta irakurleak egin begiz ikasketa sako-nagoak. Eskerrik asko.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZUGATZAK DOANGO LANGILLERIK

ONENAK DIRA: GIZONEN ALDE

GAU TA EGUN LANEAN DIARDUE

VIZCARRATARRAK KARLISTAK. ZERGAITIK EZ?

Asiko naiz esaten ia zergaitik "Vizcarratarrak" idazten dodan. Onelan curen abizena idazten eben. Abizenen arloan ez dira gauza idazkeraren erregelak. Abizenetan sendiak berak aginduten dan.

Kutunki ezagutu dot Vizcarra sendia. Obeto esanda abadea ez zan anaya, D. Ildefonso. Orren bitartez D. Benito berbera.

D. Ildefonsok idatzi eban euskeraz "La Gaceta del Norte" egunkarian guda aurrean. Bere gaztaroan Felipe Arresegaz ibilli zan irudigintza ikasten. Ondo ezaguten ebazan "Santugiñeren" olerki eta idaztiak. Don Ildefonso karlista zintzoa zan. Bere aita, Karlos VII garrenaren bolondresa zan, ogibidez albeitar izanik, Erregeren zaldia zainduten eban. Anayak be gogoz karlistak ziran, baña iñoiz ez ziran sartu alderdizko ekintzetan. D. Zakarias teologo sakona zan. Latiñez idazle argitsua be bai. Balendin Berrio-Otxoa doatsu egin zanean. D. Zakariasi agindu eutsoen ofizioen irakurgaiak idazteko. D. Martzelino Menendez y Pelayok esan eban klasizismoaldetik ez zala ain dotorea idatzi eban latiña.

Egunero idazten eban eguneangoa. Orretarako euske-rea erabilten eban. Azkenengo egunean, eriaigaitik ezin eban geiago idatzi, berba bakarra agertzen da: "ogean". D. Zakarias il zan eta gero, Bilbaora etorri zan D. Benito. Orduan ezagutu neban bere anaiaren etxean D. Benito zaar-zarra zan da min bizia anka batean jasaten eban. Adiñarengaitik min bizia astiro aundituten zan.

Osagille bilbotar ospetsu izana Vizcarratarrak lengusua eben. Gizon au siñisgabekoa zan ta gaixorik, ogetik urten barik, egoan. D. Benito'k naiz ta berau gaisorik egon, ikustaldia egin eutson. Lengusu biok kontatu eutse-zan alkarrei curen oñazeak. Azkenez abadeak zirautson osagilleari:

– ¿Qué vamos a hacer? ¡Paciencia!

– Paciencia podrás tener tú, que estarás deseando morir para encontrarte con tu Dios. Yo no creo en nada de eso.

Illabete gutxi buruan, Basurtoko ospitalean D. Benito il zan. Berakin loba bi, Ildefonsoren alabak, egozan. D. Benito'k konorte ia galdu eban. Eldu ziran gelara neskatilla bi, loba baten alabeak.

– Osaba. Maria Jesús eta Teresa eldu dira.

– Erderaz egin, erderaz egin– Neskatileak ez ekien euskeraz eta.

Au esanda gero. "Aita Gurea" errezatzen asj zan. Amaitu barik ixillik gelditu. Oatxada andiaz il zan. Alako "Zer egingo ote dogu? Eroapena bear dogu" ez iñoan esa-

teagaik. Fedez beterik igaro zan bizitza onetatik Aitearen etxera.

Sari pentsatu dot: soillik, D. Benito antzera eriotzea lortzeagaitik, obeto da fedean bizitzea, siñigabetasunean baño, naiz ta gizon ospetsua izan.

D. Martiñek aurkituriko ezkutitzean ez dago ezer arri-garririk. "Guda irabazi dogun ezker".

Guda asita gero, "gorriak" (onelan deituten eutseen buruai, berak) Eleizaren kontra beste gerra bat asj ziran. Gudaroste nazionala sartu zan erri guztietan, abadeak (erailda ezpa ziran) urten eben bere eskutunetatik, eta eleizeak (errerik ezpa egozan) zabaldu ebezan ateak.

Gudea erreketek egiten eben, baña "irabazi", guztiok irabazi genduan. Abade eta abadegai abertzaleak bere. Naiz eta geroko Francoren gobernutzaren akatsak etorri, Españaiko alde gorrian, zenbat irikitako seminario egozan?

Eta zertarako gura eban D. Benito'k guda irabaztea? Dantza lotua eragozteko. Gomuta daigun aldi aretan dantza lotua egitea gauza gaiztotzat geunkala guztiok. Urte gutxi geroago, katoliku-ekintzaren insignia artzeko, eskeintza bat, dantza lotuaren aurka egiteko, izenpetu bear zala. Neuk izenpetu neban.

Vizcarratarrak karlistak ziran (birritan esan bear dot alderdizko ekintzetan ez zirala sartu).

Zergaitik ez? Non idatzirik dago, abade zintzoak, errizale sutsua izateko, EAJ edo EAren jarraille izan bear dauala? D. Domingo Aguirre, D. Pablo Zarnarripa ta D. Julio Urquijo be, karlistak ziran. Ez ete ebezan egin lan sakon eta ederrak euskerearen alde? Bere aztarnak jarraitzen, neu be karlista naz. Ta nere bizi luzean ez dot aurkitu karlista izan ezpa nintzan euskerea, Bizkaia, ta gure izatea, geiago maite izango nebala.

Ibañez Karlos

ZUGATZ BAT SARTU

DAUANARENA EZ DA

ALPEREKO BIZITZEA

Dante

BAKIOKO EUSKERA-11

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

* zelan idatzi bear dan: «zeinetagino?»

* Bakion zelan esaten dan: «(seinetagiño?)»

-GINO

Goiko atzizkia -RAINO orren bardinantzekoa da. Baizkaierearen lurraldean -(RA)GINO^m atzizkia zabal eta eurrez erabili izan dabe leenago erriak zein idazleek. Gure erriko zaarrenek gorde egin dabe oraindikarren -GINO lekuzko atzizki zaar ori. Eurak baino gazteagoen agoetan, ostera, erderearen eraginez, -ARTE atzizkia entuten da sarritan aren orde, oker erabilia. Izan be, azken au denporazko atziakia da eta ez lekuzkoa. Bakioko zaarrek ondo be ondo dakie noz bietarik zein erabili. Ikasi daitsegula, bada! Atzizkion kasu deklinabideko ADLATIBO AMAITUZKOA deritxona da, bizibakoena, atan be.

Esate baterako:

Eleizatik etxeGINO ibili naz goizean. (lekuzkoa)

Zazpirak ARTE ibili naz goizean. (denporazkoa)

NOGINO? (NOGIÑO?)

Mugatubakoá	Mugatu SN.	Mugatu PL.	Mugatu urkoa -PL.
eleizeTAGINO (eleisatagiño)	eleizaGINO (eleisagiño)	eleizETAGINO (eleisetagiño)	eleizOTAGINO (eleisotagiño)
etxeTAGINO (etxetagiño)	etxeGINO (etxegiño)	etxeetagino (etxietagiño)	etxeOTAGINO (etxiotagiño)
mendiTAGINO (menditagiño)	mendiGINO (mendigiño)	mendiETAGINO (mendidxetagiño)	mendiOTAGINO (mendidxotagiño)
soloTAGINO (solotagiño)	soloGINO (sologiño)	so1oETAGINO (soloetagiño)	soloOTAGINO (solootagiño)
lekuTAGINO (lekutagiño)	lekuGINO (lekuigiño)	lekuETAGINO (lekuetagiño)	lekuOTAGINO (lekuotagiño)
izarrETAGINO (isarretagiño)	izarrEGINO (isarregiño)	izarrETAGINO (isarretagiño)	izarrOTAGINO (isarrotagiño)

Tokien izenak MUGATUAN deklinetan dira, berbarako:

AlgortaGINO (Algortagiño) – MungiaGINO (Mungidxegiño) – AlardoneGINO (Alardonegiño) – BasauriGINO (Basaurigiño) – BakioGINO (Bakidxogiño) – ErmuGINO (Ermugiño) – BrasilEGINO (Brasillegiño) – NoainEGINO (Noaiñegiño) – LemoizEGINO (Lemoisegiño)...

Beste batzuk:

onaGINO (onagiño) – onaxeGINO (onaxegiño) – orraGINO (orragiño) – orraxeGINO (orraxegiño) – araGINO (aragiño) – araxeGINO (araxegiño) – bertoGINO (bertogiño) – bertaGINO (bertagiño) – oneTAGINO (onétagiño) – oneETAGINO (one-tagiño) – orreTAGINO (orretagiño) – orreETAGINO (órretagiño) – areTAGINO (arétagiño) – areETAGINO (áretagiño)


edo

noGINO? (nogiño?) – zeinETAGINO? (seiñetagiño?) – zertaGINO? (setagiño?) zeintzuETAGINO? (seintzuetagiño?) – nonoGINO (nonogiño) – batEGINO (bategiño) – batzuETAGINO (batzuetagiño) – besteGINO (bestegiño) – biGINO (bigiño)

(1) -RAGINO atzizkiaren errea (e.b.: eleizaRAGINO) erabili izan da geien Bizkaiaren, aurreko -RA -bako atzizkia baino. Gure eritxian, atzizki ori alantxe da osoagoa. Bakion be nozoz entzuten da -RAGINO atzizki osoagoa, -RA -bako atzizkia, au da, -GINO nagusi bada be.


INAKI MARTIARTU

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Margoztu marrazki au ta marrazki polit bat agertuko da!

1- Gorriz, 2- oriz, 3- morez, 4- laranjaz, 5- morez, 6- olergi illunez, 7- orlegi argiz, 8- baltzez eta 9- urdiñez.



7 erru dagoz, aurkitu bear dozuz!

KARMELE



kultura
sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²